Bestelako Xedapenak

**OGASUN ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
GARRAIO ETA
HERRI LAN SAILA**

832

28/2009 DEKRETUA, otsailaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematen diona «Bizkaiko Kamioe Kokaleku Bortxatuak AB, Aparcamiento Disuasorio de Camiones de Bizkaia, SA» (Bikakobo-Aparcabisa) sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko.

Europako herrialdeen arteko merkataritza-harremanak areagotzearen eta garraio-sektoreak hartu duen garrantzia ekonomikoaren ondorioz, aipatu bezalako zentroak sortu dira Europan; zentro hauek, hain justu ere, garraioko eskariaren eta eskaintzaren arteko kontaktua erraztu eta koordinazio intermodala ahalbidetzen dute, eta enpresen koordinazioa, kudeaketa eta antolaketa hobetzen.

«Bizkaiko Kamioe Kokaleku Bortxatuak AB, Aparcamiento Disuasorio de Camiones de Bizkaia SA» (Bikakobo-Aparcabisa) sozietatea abenduaren 20ko 242/1982 Dekretuaren bitartez eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sozietate Publiko gisa, eta abenduaren 3ko 375/1985 Dekretuaren bidez galdu zuen izaera hori. Sozietate horren xede soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan merkataritza-zentru integralak eta ibilgailu astunentzako aparkalekuak sustatu, prestatu eta ustiatzea da.

Erabakitako gehikuntzaren aurreko kapital soziala berrogeita bi milioi seiehun eta berrogeita bat mila ehun eta hamabost euro eta berrogeita sei zentimokoa da (42.641.115,46). Kapital horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak zortzi milioi bostehun eta zortzi mila zortziehun eta laurogeita hamalau euro eta berrogeita hamasei zentimoko (8.508.894,56) partaidetza eta harpidetza du, kapitalaren % 19,95ekoa, alegia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Erkidegoan kokaturiko garraio-zentro integratuak sustatzeko duen politikari jarraiki, kontuan hartu da «Bizkaiko Kamioe Kokaleku Bortxatuak AB, Aparcamiento Disuasorio de Camiones de Bizkaia SA» (Bikakobo-Aparcabisa) sozietatearen Batzar Nagusiak bere kapital soziala gehitzeko egindako aurreikuspen txostena. Bi milioi bostehun mila berrehun eta hamabi eurotan (2.500.212) gehituko da, zeintzuk bost mila eta berrehun (5.200) akziotan baitaude ordezkatuta eta horietariko bakoitzak laurehun eta laurogei euro

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PÚBLICAS**

832

DECRETO 28/2009, de 3 de febrero, sobre autorización de participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la ampliación de capital de la sociedad Bizkaiko Kamioe Kokaleku Bortxatuak, A.B., Aparcamiento Disuasorio de Camiones de Bizkaia, S.A. (Bikakobo-Aparcabisa).

El incremento de las relaciones comerciales entre los países comunitarios y la importancia económica del sector del transporte han motivado la creación en Europa de estos centros que facilitan el contacto entre la oferta y la demanda de transporte, a la vez que posibilitan la coordinación intermodal, mejorando la organización, gestión y coordinación de las empresas.

La sociedad Bizkaiko Kamioe Kokaleku Bortxatuak, A.B., Aparcamiento Disuasorio de Camiones de Bizkaia, S.A. (Bikakobo-Aparcabisa) se constituyó por Decreto 242/1982, de 20 de diciembre, como Sociedad Pública de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, habiendo perdido tal condición por Decreto 375/1985, de 3 de diciembre. Constituye su objeto social la realización de aquellos fines, dirigidos a la promoción, preparación y explotación de Centrales Integrales de Mercancías y aparcamiento para vehículos pesados en el Territorio Histórico de Bizkaia.

El capital social anterior a la ampliación acordada se fija en cuarenta y dos millones seiscientos cuarenta y un mil ciento quince euros con cuarenta y seis céntimos (42.641.115,46), estando participado y suscrito por la administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en un importe de ocho millones quinientos ocho mil ochocientos noventa y cuatro euros con cincuenta y seis céntimos (8.508.894,56), que suponen un porcentaje del 19,95% de aquél.

Siguiendo con la política de la administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi de potenciar los centros integrados del transporte ubicados en la Comunidad, se ha tenido en cuenta el informe de previsión de la sociedad Bizkaiko Kamioe Kokaleku Bortxatuak, A.B., Aparcamiento Disuasorio de Camiones de Bizkaia, S.A. (Bikakobo-Aparcabisa) de ampliar su capital social en dos millones quinientos mil doscientos doce euros (2.500.212), representadas por cinco mil doscientas (5.200) acciones nominativas de cuatrocientas ochenta euros con ochenta y un céntimos de euro

eta laurogeita bat zentimoko (480,81) balio izendatua baitu. 88.687tik 93.886ra arte —biak barne— daude zenbatuta.

Hala ere, Jose Antonio Isasi notarioarekin 2008ko abenduaren 19an egindako bileran, sozietatearen kapital gehikuntzaren ondorioz sortzen den 20 zentimoko aldea, Bilkura-Aktari ondoko testu hau gehituz konpondu dela ikusi zen: «sozietatearen kapitala 42.641.115,66 eurotan finkatzeko eta euroak biribiltzearen ondorioz gertatutako 20 zentimoko deskoadratzeak ekiditeko, aurreko eragiketaren ondoriozko kapitalari 20 zentimo gehitzen zaizkio Sozietatearen gordekinen kontura eta, ondorioz, sozietatearen kapitala 42.641.115,66 eurokoa izango da eta Sozietatearen Estatutuetako 5. artikuluan jasoko da».

Zuzendari Orokorrak aurreikuspen txostena —kapitala gehitzeari buruzkoa— aztertu ostean, bidezkotzat jo da, helburu horri begira, kapital horren gehikuntzan parte hartzea. Ondorioz, EAEko Administrazioak sozietatearen kapitalean duen partaidetza % 19,96koa da, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuko 110. artikuluan eta gainerako xedapenetan adierazitako prozeduraren arabera.

Horiek horrela, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Garraio eta Herri Lan sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko otsailaren 3an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aurreikusitako kapital gehikuntzan parte hartzeko. Jaurlaritzaren Kontseiluak baimena eman ondoren, «Bizkaiko Kamioe Kokaleku Bortxatuak AB, Aparcamiento Disuasorio de Camiones de Bizkaia SA» (Bikakobo-Aparcabisa) sozietatearen Akziodunen Ohiko Batzar Nagusiak gehikuntza onartu ahal izango du. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bostehun mila eta berrogeita bi euro eta berrogei zentimoko (500.042,40) ekarpena eginez gauzatuko da eta, hala, sozietatean duen partaidetza-portzentajea % 19,96koa izango da.

2. artikulua.– Baimena ematea Ondare eta Kontratazio zuzendariari, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean, akzio horiek harpidetzeko eta estaltzeko behar diren ordainketak eta ekarpenak

(480,81) de valor nominal cada una de ellas, numeradas de la 88.687 al 93.886, ambas inclusive.

A su vez, tras la reunión mantenida el 19 de diciembre de 2008, con el notario D. Jose Antonio Isasi, se llega a la conclusión que la diferencia de 20 centímos de euro que se producen como consecuencia de la ampliación de capital social se solucionará añadiendo en el Acta de la Junta el siguiente texto: «con objeto de fijar la cifra del capital social en 42.641.115,66 euros, para evitar los descuadres (20 céntimos) producidos por efecto del redondeo a euros, se amplia el capital resultante de la operación anterior en 20 céntimos de euro con cargo a las reservas de la Sociedad alcanzando por tanto el capital social la cifra de 42.641.115,66 euros, que se refleja en el artículo 5 de los Estatutos Sociales».

Una vez analizado el informe de previsión para la ampliación de capital elaborado por el Director General de la mencionada sociedad, se estima adecuado a tal fin acudir a la citada ampliación de capital, siendo posteriormente el porcentaje de participación de la Administración de Euskadi en el capital social del 19,96% todo ello conforme al procedimiento señalado en el artÍCULO 110 del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, y demás disposiciones concordantes.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y de la Consejera de Transportes y Obras Públicas, previa deliberación y aprobación del Gobierno en su sesión celebrada el día 3 de febrero de 2009,

DISPONGO:

Artículo 1.– Autorizar la participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la ampliación de capital prevista con el fin de que, una vez autorizada por el Consejo de Gobierno se pueda acordar por la Junta General de Accionistas de la sociedad Bizkaiko Kamioe Kokaleku Bortxatuak, A.B., Aparcamiento Disuasorio de Camiones de Bizkaia, S.A. (Bikakobo-Aparcabisa) la referida ampliación, con una aportación por parte de aquélla de quinientas mil cuarenta y dos euros con cuarenta céntimos de euro (500.042,40), siendo con ello el nuevo porcentaje de la participación de la Administración Autónoma del País Vasco en el capital de dicha Sociedad, el 19,96%.

Artículo 2.– Autorizar al Director de Patrimonio y Contratación, en nombre de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a materializar los desembolsos y aportaciones necesarias para la suscrip-

egiteko eta aurreko artikuluan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren gainerako jarduketak gauzatzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko otsailaren 3an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.

ción y cobertura del importe de las acciones correspondientes, y para el ejercicio de las demás actuaciones necesarias para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo anterior.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de febrero de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Consejera de Transportes y Obras Públicas,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.